

Jota Pizarro

GIZARTEAREN ZIRRIKITUETAN ARAKATZEN



GIZA IZAERA INTERESATZEN ZAIT, EUSKAL HERRIAN, TXILEN, EDO ZEELANDA BERRIAN



Zer da berez gizakia, otso ala ardi? Zein du bulkada sakonena, menderatzea ala men egitea? Gizakiak taldetan nola ibiltzen eta moldatzen garen, horixe aztertu du azken urteotan Jota Pizarro txiletarrak. Donostian bizi da azken zortzi urtean, eta munduko beste toki batzuetan ere ibilia da. Asko lagundu omen dio horrek, “burua zabaldu” diolako eta “beste puntu bat daukazulako konparaketak egiteko”.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Hasteko eta behin...

José Joaquín ala Jota?

Nahiago dut Jota. Txikitatik deitzen didate hala. Oso txikia nintzenean, beti zen Jota Jota, hiru izen ditudalako eta lehenengo biak letra horrekin hasten direlako, baina gero laburtu egin zuten.

Txilen jaio eta hazi zinen. Kontatuko zenidake apur bat tokiaz, garaiaz...

Santiagon jaio nintzen, eta 4 urte bitarte han bizi nintzen, familiarekin noski, eta gero landara joan ginen, gure auzokideak oso urrun zeuden, eta oso gustura

bizi nintzen han, txakurrekin, animalia batzuekin eta lur askorekin. Lehenengo urteetan lurra lantzea zen nire aitaren lana, baina gero beste gauza batzuk egiten hasi zen, eta unibertsitatean hasi nintzenean, aldatu ginen eta joan ginen herrira, baina oso herri txikia zen. Herri txiki bateko pertsona naiz.

Itzultzeko aukerarik izaten al duzu?

Posible bada saiatzen naiz ahalik eta gehien bueltatzen, oporrak han pasatzen... Denbora eta dirua baldin badauzkat, joaten naiz. Askotan denbora

daukat, baina ez dirua, beste batzuetan dirua, baina ez denbora. Aurreko urtean joan nintzen oporretan, eta aurtien kasualitatez joan nintzen nire aitona hil zelako. Aukera izan nuen eta opari bat izan zen. Oso polita, azken finean bi aste baino ez ziren izan, baina ez nituen espero, eta justu-justu iritsi nintzen hiletara. Pelikula bat ematen zuen.

Zortzi urte daramazu Euskal Herrian. Nolatan etorri zinen?

Maitasunagatik [barreak]. Txilen ezagutu nuen nire bikotekidea, bera hemengoa



Jota Pizarro

SANTIAGO, TXILE, 1988



Psikologia ikasi zuen eta psikologia sozialaren arloan egin du tesia: *An Emotional Path to Ourselves* (Bide emozional bat geure bururantz). Aurki aurkeztuko du. Donostian bizi da azken zortzi urtean, baina Antzuola du bigarren etxea.

da. Ni karrera bukatzen ari nintzenean ezagutu genuen elkar; di-da batean hasi ginen harreman honekin, eta berak Txilen eman behar zuen denbora bukatzen ari zenean, hasi ginen pentsatzen ea zer egingo genuen, eta bion artean pentsatu genuen ni etorriko nintzela. Nik beti eduki nuen sekulako gogoia bidaiak egiteko, ez nekien nora ez nola, baina banekien zerbait egingo nuela. Beraz, bizitzako planak eta ltsaso ezagutzea bat etorri ziren gutxi gorabehera.

Psikologoa zara ikasketaz, eta psikologia sozialaren arloan egin duzu tesia. Garbi zeneukan hasieratik ikerketan aritu nahi zenuela?

Psikoanalisiarengatik sartu nintzen karrerara, pentsatuz psikologo klinikoa izango nintzela, pila bat gustatzen zitzaidan. Gero, psikologia soziala ezagutzean, maitemindu egin nintzen. Txilen ezagutu nuen eta han bertan erabaki nuen psikologiako irakaslea izan nahi nuela.

Zer da psikologia soziala, zehazki? Zer alde dago korrante horren eta psikologiako beste korranteen artean?

Zaila da esatea, baina, normalean, harreman sozialak baldin badaude, nik hor ikusten dut psikologia soziala: asko lantzen ditugu emozioak, boterea, estatusa, akulturazioa, estereotipoak, prozesu kolektiboak... Guk ez dugu lantzen diferen-

tzia indibiduala, pertsona irekia den, lotsatia, ala ludopata; hori berdin zait. Nik esplikatut nahi dut, hartzen badut jende multzo bat, manifestazio batean edo bestelako erritu kolektibo batean, zer prozesu, mekanismo eta emaitza sortzen diren, jende askorekin partekatzen duzunean zerbait.

Soziologiarekin konparatuta, zein izango litzateke aldea?

Oso hausnarketa ona, ez dakit non amaitzen den bat eta non hasten den bestea. Esango nuke guk neurketa gehiago egiten ditugula, baina ez nago oso ziur hori ote den biak bereizteko arrazoia.

Zer neurtu duzu zure tesian eta zer ondorio atera duzu?

Batez ere manifestazioak eta elementu erritualistikoak dauzkaten ekitaldiak aztertut ditut, adibidez kontzertuak, antzezlanak, non espero diren gauza batzuk, edo danborradak... Eta ondorioa izan da beste pertsonekin partekatzeak gauza onak dakartzala, autoestimuturria delako, eta parte hartu eta gero arinago sentitzen zarelako. Ez dut esan nahi erritual horiek beti direnik positiboak, naziek ere egiten baitzituzten. Positiboak dira, batez ere, gure auto-estimuari eta ongizateari on egiten diotelako, eta laguntzen dutelako gizarteetan elkartasun-sareak sortzen. Kristoren beharra daukagu beste pertsonekin bizitzeko eta gauzak partekatzeke,





eta nire tesian ikusi dut parte emozionala oso garrantzitsua dela. Ez gara oso kognitiboak. *Homo economicus*-aren teoria hori, sinesten duena beti ari garela dena prozesatzen ea zenbat irabazten dugun eta zenbat galtzen dugun, hori ez da erreala, benetan erreala dira emozioak, sentsazioak eta zelan sentitzen garen.

Landu dituzun gauzak nola eraman litezke praktikara?

Batez ere nire aitak egiten dizkit horrelako galderak eta ez dakit zelan erantzun. Funtzionalki ez dakit zer egin dezakegun ezagutza honekin. Nik nahiago dut prozesuak neurtu. Beste batzuek, igual, nahiago dute esku hartzeko planak egin, igual hezkuntzarekin lotuta... Orain egiten ari garen ikerketa-lerro bat da, gatazkak bizi izan dituzten gizarteetan, zelan bueltatu normaltasu-nera. Euskal Herrian, adibidez, biolentziarekin, bi aldetako biktimekin, eta Kolonbian ere bai, ikusten ari gara emozio hauek asko laguntzen dutela, ez hainbeste barkatzeko, agian ez da erreala, baizik eta pixka bat bizitza normalera bueltatzeko. Identitate humanoa partekatzen badugu eta konturatzen bagara denok garela gizakiak, gauzak hobeto joa-

ten dira. Beste pertsona batek, agian, har dezake ezagutza hori eta sortu interbenztzio plan batzuk eskoletan edo beste, baina nik, egia esan, ikerketak egin nahi ditut. Giza izaera interesatzen zait, Euskal Herrian, Txilen, edo Zeelanda Berrian.

Eta Palestinan ere bai. Hara joaten saiatu zinen orain dela bi urte, ezta?

Beste proiektu batean nago, eta nazioetan pertsonak daukaten memoria kolektiboa aztertzen dugu. Horrekin lotuta, gure nagusiak lortu zuen kontaktu bat Palestinako ikertzaile batekin, oso jatorra. Etorri zen hona gauzak ikustera, eta proiektua zela-koa zen jakitera, eta gu ere saiatu ginen hara joan eta Gazan sartzen, baina ezin izan genuen blokeoa pasa. Israelen geratu ginen hogeita bi egunez, Tel Aviven eta Gazako mugatik gertu dagoen Axkelon herri handian.

Nolako esperientzia izan zen?

Oso sakona, pena dugu ez genuelako lortu sartzea, baina bestalde, han sentitu genuena oso arraroa da, tentsio maila oso altua da. Bazter guztietan ikusten duzu jendea metrailetarekin eta ni beti sentitzen nintzen oso behaturik. Fenomeno sozial moduan oso interesgarria da. Politi-



EUSKAL HERRIAN BAINO LEHEN, ZEELANDA BERRIAN

Pizarrok argi zeukan, gaztetatik, bidaia nahi zuela. Euskal Herriira etorri aurretik, Zeelanda Berrian egon zen beka bati esker. Oso gogoan du esperientzia hura: “Hiru hilabete pasa nituen han, Auckland hirian, baina ika-ragarria izan zen, badakit burua pila bat ireki zidala. Asko akordatzan naiz han ezagutu nituen pertsonekin. Hango emakume baten etxean geratu nintzen, Moniquenean. Gauza askotan egiten zuen lan, eta haietako bat zen kanpotik etorritako ikasleak hartzea. Saudi Arabiako ikasle batekin eta Txinako beste batekin egon nintzen, eta biekin gauza asko konpartitu nituen”.

PSIKOLOGIA ETA POLITIKA

Aztertu duen guztiak politikarekin zer zerikusi izan dezakeen galdetuta, haxe erantzun digu Pizarrok: “Euskal Herriko eta Kataluniako egoerari begira, ikusten dudana da politikariak ez dakitela ezer psikologiari buruz. Katalunian, adibidez, politikari askok nahi dute Katalunia oso homogeneoa izatea, Espainia bezalakoa, eta guk, psikologiaren eremutik, badakigu horrek ez duela funtzionatzen”.

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

koki, kaka da, apartheida dagoelako, hori badakigu. Baina zientifikoki begiratzen baduzu, oso interesgarria da ikustea kaka horrek zer sortzen duen pertsonen artean: mesfidantza instituzioetan, beti diskurtsoan oso sartuta, oso kategorizatuta...

Nola konpondu zineten jendearekin?

Ederki. Gazan sartzeko ahaleginean asko lagundu ziguten pertsonak ezagutu genituen, eta bestalde, herrialde askotan pasatzen den bezala, jendeak bakea nahi du. Beldurrez hitz egiten badute ere, gorroto puntu batekin, tiratzen baduzu soka horretatik, konturatzen zara fatxak direnek ere kristoren beldurrak dituztela, familiako historiarengatik edo bizitako esperientziengatik... Ez dakit, baina gizakiak gara. Horrek ez du justifikatzen botere-ezberdintasuna, jakina, baina gustatzen zait konplexutasuna ikustea, ez dudalako sinesten pertsona batzuk onak direnik eta beste batzuk txarrak. Ez da horrela, nire ustez.

Nola da?

Ez dakit, gizakiak gara... Zertarako sartzten ditugu adjektiboak, gu hobeto sentitzeko? Nik nahi dudana da, esan bezala, ikastea edo bilatzea edo jakitea zer den giza natura.

Ederki moldatzen zara euskaraz.

Nolakoa izan da hizkuntza ikasteko zure prozesua?

Nahiko azkarra. Esan ohi dut kuadrillari eta AEKri esker ikasi nuela euskara. Alde batetik, AEKn sartu nintzelako eta bi urtez jarraian egin nituelako bi ordu egunero, eta horrek pila bat lagundu zidan. Hori baino lehen, kuadrillakoek beti esaten zizkidaten hitzak, esaldiak, eta AEKn sartu nintzenean eman zidaten bi hilabete epea gaztelaniaz hitz egiteko, hortik aurrera dena euskaraz, eta hala izan zen. Oso gogorra izan zen momentu batean, baina horri esker oso azkar ikasi nuen, eta gaur egun asko eskertzen dut.

Euskaraldia, *avant la lettre*. Erritual kolektiboak ikertu dituzula jakinik, nola ikusten dituzu Euskal Herriko erritualak?

Niretzat, adibidez, kristoren errituala da Gazte Martxa, oso polita, herriak zeharkatzearen sentsazioa, mugitzen ari zara... oso polita da. Korrika bera oso polita da, urte batean nik eraman nuen lekukoa Antzuolako gaztetxearen kilometroan eta oso ederra izan zen. Hemen kristoren erritualak daude: santa eskeak, sorgin

dantza... Horrelakoak ez ditut ikusten Txilen. Hemen erritual kolektibo asko daude, ez bakarrik ondo pasatzeko, baizik eta oso beharrezkoak.

Azken asteotan, zure herriko egoera pil-pilean dago, hala iritsi zaigu komunikabideetatik. Nola bizi duzu gertaerak hain urrutitik segitzea?

Oso konplexua da, sentimen gazi-gozoa geratzen zait. Alde batetik izugarri pozik nago gauzak piztuta daudelako. Txilen beti esan izan dugu goi klasekoek kristorenak egiten dituztela gure kontra, eta nabaritzen da diskurtsoan: gure zorte txarra dela diote, ia-ia merezi ditugula horrelakoak. Eredu horretan hezten bazara, pentsa dezakegu ezin dela ezer aldatu, baina gaur egun ikusten ari garena oso polita da. Jendeak aski dela esan du eta espero dut zerbait sakona pasatzea, bestela berdin jarraituko dugu. Jende askok dauka asko galtzeko, adibidez, ez badira lanera joaten pila bat galtzen dute, eta soldata minimoarekin ezin da bizi Txilen. Hemen manifestazioa eginda asko galtzen da, baina han dena jartzen duzu jokoan. Bestalde, zer pena, zelako indarkeria, batez ere instituzionala, militarrena eta karabineroena: hemezortzi hildako, poliziak emakume pila bat bortxatu ditu...

Zer irakurketa egiten duzu gertatzen ari denaren inguruan?

Metroaren prezioaren igoeragatik dela dirudi; horrek piztu zuen kontua, bai, baina ez zuen sortu, askoz gauza sakonagoa da. Pinocheten garaia ostean, instituzioetan geratu ziren pertsonak bere zaleak ziren, baina Txilen ez da inoiz egon ongizate estatu bat, Txilen ez dago hezkuntzarik, osasungintza-sistemarik... Minbizia baldin badaukazu, pikutara zoaz. Soldata minimoarekin ezin duzu hilabete bat pasa, ezin duzu, eta hori oso biolentzia da. Tranpak egin behar dituzu beti. Tranpak eginez bizi zara, gauzak lortuz BEZ pagatu barik, lapurtutako gauzak lortuz... Beti izango da zerbait zuk gauzak ondo ez egiteko, baina normala da: zer egingo duzu ba, ez bazara ailegatzen! Hori da benetako biolentzia. Gainera, klase politiko nazkagarri horrek esaten dizu, ez bazara aberatsa, zure ardura dela. Indarkeria handia da, eta urte asko dira, jendeak ezin du gehiago. Gustatzen zait dena piztuta ikustea, baina esan bezala espero dut sakoneko gauzak aldatzea, bestela badakit langile klaseak ordainduko duela. ●